

TEKNOKRAZIA

Ekonomi-gaiak, gizartearen lanaren ondorena ikasteko eginia dira. Gizartean zenbat gauza eta zerbitzu egiten den ikasiaz, lanbide auen ondorena aza eta aalik eta sakonean zabaldiaz «bizitzako neurria», edo «nivel de vida» igotzen dute bere elburua.

Orrela eginiaz, materialismo utsa bezala agertzen zaigu ekonomia gizonaren bear gozokoak kontuan artzen ez ba-dira. Ta orrela gertatzen dala badakigu erri sozialistetan, komunistetan, ta kapitalismoaren legepean bizi diran beste zenbait eriritan.

Jaiotzako seaskatik, obian eortzen dan arte, gizonaren bizia buhltzina bezalako bide zuzen ta moldatuetan igarotzeko antolatu dago. Teknokrazia ta ekonomi geiegia gizonaren bizitzaren ondorena, ta bere buru argian Jaungoikoak ezarrirako doaiaren berri ez du jakin nai, nun eta doai auk ez diran aberastasuna egiteko, erria aberastarazteko.

Gizona matematiketako formularekin zuzendu nai izaten duten ekonomistek eta teknokratek, zearo aaztuta uzten dute gizonaren muinean egarri bereziak badirala, ur ta jakiz asetzen ez diran egarriak: askatasuna, lasaitasuna, artea edo edertasunaren nabaitzea... Zer ekonomistek ezarri lezaioke prezio on bat bazkalandoko kuluxa gozo bati? Edo udaberriaren mendiak loratzen diranean aien margoa ikusteari? Ta euskaldun geranex, zer balio ezartzen diote gure teknokratik Euskalerrri euskaldun batean bizitzeari?

Irabaziak, dirua ta aberastasuna ez dira dana, Bear izenaren din da gizonak espirituko gauzetan, gogozko jardunetan ere ari bear du, ta auetako lasaitasuna ta denbora eman bear zara. Gai-nera, askatasunik ematen ez ba-zaio, gizona ezin ditek gizon izan. Bere erri arazoetan aukerarik ez ba-du, agintiarik berekin kontatu gabe ezartzen ba-zaizkio, legeak erriaren borondatez eginak ez ba-dira, etzaiozu gizona deitu. Aberastuko dezu, gizenkudo dezu, materialismoak eman ditzazken goxotasun guztiak emango ditzakzu, baiña gizona ez da gizon izango askatasunik gabe, bere dintasuna kendu baldin ba-diozu.

Alperrik ariko dira gaurko ekonomistak gizona izeneko abere batentzat aska ohebat prestatzen. Alperrik ariko dira «bizitzaren neurria» altxatzen dutelako ustetan.

Geinenaz ere, gaurgo baserri urrurratuetan be ta urdentzat egiten dituzten aurrapenen tankeran, gizonen antzeko abere batentzat aska berri bat prestatzen ariko zaizkigu, ez mundu berri bizitzarriago bat egiten.

Gure lantegi aundietako ugazabak joan den gizardian Bizkaiko minetarik asi, ta Andonegik Pasaira ekarri zituen galleguekin gertatu zan bezela, ekonomiaerri itsutasunak agintzen zuan bidetik jarraituaz, gure erria, artzotaren bizileku egin digute. Garai batean, gure artzotzaren euskaldun utsak ziran erriak, gaur erdi-erdaldun. Biar berri, nor daki?...

Orra or teknokratiz itsuaren ondorena. Orra or diru-goseak eta aberastasuna arkitzeko bidetik errosenak dakarkean ondamendi. Orra nola gaur gure Euskalerrria bere izakera berezia galtzeko bidean ezarria daukagun.

Erri bat egin nai digute, diru irabazteko, aberasteko, baiña eskuak izate, gure oiturak, gure aintzirikoa milla gauza edero ondatu digute.

Zer da ohea? Leen esan degun bezala; bai al dekite gaurko ekonomistek zenbat balio duen gizonaren lasaitasunak? Erri baten arimak? Arima, arima! Zer da ori gizartea sozializatu nai dutenentzat? Zer da euskaltasunaren usia ekonomiaiko matematiketan? Irudi bat, ezerez? Baliorik gabeko neurri bat! Ortan daukagu gaurko euskaldunok arreta aundia euki bearra!

KEZKAZ

Epai-aurreko zigorrak

Zigorra eta errua, biek elkarrekin joan bear dute. Ondo izateko beintzat. Erruak berekin du zigorra. Zor zaio, bai, erruari zigorra. Bestela, batak, egindako kaltea ordaindu gabe geldituko litzake; bestetik, berriz —eguzkipe ontan inor ez bai gera ingeru!— zigorraren bildurririk ez balitz, neurri gabe usaritu di tizeko erruak eta errudunak.

Zigorritako guztiak, ordea, berekin aal zuten erru? Ala bear. Bestela ez litzake zigor; bestela, EZ ZAZU INOR IL agintzen duan Legearen aurkako jokabidea litzake.

Izan ere, ez dago erregabeak zigortzeko eskubiderik. Oker eta gaiztakeri makurra da erregabeak joitzea, zauritzea; billaukeri beltza da erregabeari miñ ematea, gaizt egitea, gogorregi erasotzea. Eta zer izango da, indurraren indarrez inor beartzea?

—000—

Baiña zein da erregabe? Ona emen zalantzan jarri ez ditkeen erantzun garbia: dan-danak dira erregabeak, arik-eta besterik argibidetzen ez dan arik.

Beste eta batera esanda, inor ez da errudun, arik-eta errua zalantza —bidetik gabe argibidetzen ez dan biartean.

Bakoitzak bere barrua errudun arkitzea, edo berdin dana, norbait egiazko errua eukitzea ez da naikoa, beste gabe, nobait ori zigortu-aal izateko. Legeak lege diran jokietan, legeak lege diran biartean, ezipirik gabeko argibide zurrak bear ditu Agintaritzak berak ere inor zigortzeko.

Nun geldituen da, bestela, EZ ZAZU INOR IL esaten duan Agintu zorroztat? Aginte mailarik nagusidunak berak ere Agintu ordez kanpoko jokabiderik auri ote dezake, zuzenbidez beintzat? Bai ote da orrelakorik uste duanik?

—000—

Giza-eskubideen Aitorpen Orokorrean argi eta garbi izendaturik da-

goz, bakoitzak gai ontan dituan eskubideak, ain zuzen ere, Agintaritzak eukitzeko indarkeriatatik babesteko.

Euskaldunon artean ez dira orain-goxeak, bakoitzaren eskubideak babesteko sena eta ardura Arira dator Celaya'tar Adrian jaunak «EUSKAL GIZAIZTIA» zeritzaion Bilbaoko iakintza-astean aitortu zuana.

Euskaldunen Lege Zaarak zorrozki debekatzen zuan inor oiñazteza, 1452'g eta 1526'gn urietan egindako bilduma idatzietan ageri denez. Eta oiñazteak ez ezik, oiñazerik eskeintzea edo zemaiz egitea bera ere debekaturik zeukan.

Alperrik emango zuan erregeak berak ere bestelako agindurik, aguro askatuko bait zuan erria betekizun ortarik Gernikako Batzar Nagusik, arako esera ezagun aren bidez: «Obeditu bai, esandakoa egin ez».

Agintaritzari begiurua agertzea bai, alegia; itisu-itisuko menpeltasunik ez, ordea, zuzenbidezko ez diranetan. Gure Lege Zaarak bai ziralara Lege!

—000—

Orra beste erri bai biziro giza-eskubideen aldekoa: Grezia zaarra. Erri-aginte edo demokratizaren seaska eta jaiotzetzat artu izan da beti.

Baiñan gaur nola dago? Iru urte dararamazki ain eskubide-zale ta eskubideen babesle dan Greziako erriak, iru urte aundi «koronel» en jauntxotzeria jasaten morrontzape gogorreen.

Bildurra eta izua alde guztiari-rik. Nola ez? Nor-nai geria ditke salatzalaz; edonork saldu zaitezke, ustekabean eta adiskide-iturran; den-dariak... argazkiak... taxi-zaleak...

Ikasle batzuei gertatua: Galdekitun bati batere maltzurkeririk gabe eukitzeko erantzun zioten. Ondoren? Polizietara eraman eta an? —Zer-tan sartzen zerate ontan? Ez zaizue pentsatzerik eskatzen; ezta zuen irizirik ere! Beingoagatik, barkatzen zaizue, Urrengoa ebesterat! Eta ba ditke saietis-egurten hot austea.

—000—

Eta epai-aurreko zigorrak? Egunoroko ogia. Ogei ta amalau lagunen auzia. Auzitegian auen alde egingo zuan lege-gizonik ezin aurkitu: ogie eta amarrek ezeekoa, ausartzen ez ziralako. Bat ausartu zan, orregatik!, eta danak bildurgarriro zigortuak, epai-aurretik zigor-erasorik mingarrien eta lotsagarrienak artuak izan ziralara aitortu zuan, erria dana asalda-eriaz.

Ba da Europar «Giza-eskubideen Bazorde» bat. Elkarie oniek bere esku dauzka 213 lagunek artu dituzten zigor-erasoak, guztiaren ziur-ziur argibidetuak.

Aritzekoala da Europako Batzordea edo «Consejo de Europa» deritzonaik —ain juxtu ere giza-eskubideak babesteko sorruak— Greziako jokabideak gaitzetsa eta Grezia Batzarretik kanporatzea?

—000—

Erri batentzat bai ote ditke bildurra eta salaketa legezkat jariteza baiño ondamendi aundiagorik? Eta ala gertatzen da Grezian. Erri bakarra ote da gure mundu txar ontan gisa berean dagoanik?

Bidezkoak eta arazoizkoak dira Irakasle baten kezak: «Koronel oiek, militar guztiak bezela, bildur dieje jende ikasiei. Orregatik ari dira aalegiñak egiten, jenden ikasketamaila beean geldi dedin. Gu, ordea, ez gindezke lo egon».

«Arriskuak arrisku, saiutu bearrean gagoz jenden buruak eta begiak argitzen. Gazeen artean «buru-garbitze» aundia ari dute. Pentsatzea, irizirik ematea egoera aztertzea, zearo debekatu ditzigute. Greziarrak buruz argiak dirala, gisa orian aberentzu-aal izateko? Berenez bai, baiñan saiaketa oiek irauten baldin badaute, nor jakin zertariaño aberentzu dituzten?» (J. A. TRIUNFO, 1970-VI).

Epai-aurreko zigorrak... debekatuak... salaketak... «buru-garbitzeak»... iru urteko lana... Eta ori urte askoz luza baledi? EZ ZAZU INOR IL.

ARGUEDAS, BLANCO, DE LA PUENTE, ETA KETXUATARRAK

Orain dela lau hilabete, ehorzketako koloretan bat ikusi zen Perun: kataburuaren atzetik, indio mordo harigarri bat zijoan, begiak bilduta, margotako artilzo txanoak buruetan antz, aurpegien larrua gorriska ilun, «sierra»-ko txistu zaharrak han eta hemen jotzen ari; eta, tarteka, poliziak izen debekaturik, kantu erboluzionaliak ozenki jehertzen ari, ketxuaz eta españeraz. Jose Mari Arguedas txarreguak, indioen defendatzaile susutsuak, bere burua hila zuen Azaroren 26-an tiro batez. Andeetako Andahuaylas'en jaioa, 58 urte zituen.

Ez genuen euskaldunok behar bezela erreparratu. Zer dakigu guk Cuzco'ko indioez? Ezer gutxi. Españeraz mintzaten ez dakiten hamabost bat milion indio daude gaur, halere, Ameriketan; eta Ecuador, Bolivia eta Peruko mendiarreetan batez ere, Inca-tarren ondorengok han bizi dira milionka, denean ukarrit, orain dela lau mendez geroztik osoki zapalduak. Etnia nagusia, jakina dena, ketxuatarra da («chéchua», españeraz). Cuzco inguruan aspaldidanik nagusi.

Jose Maria Arguedas, hain zuzen, Hugo Blanco sindikalalaria eta Luis de la Puente gerrilleroa bezala, ketxua horien aintzindari izan da; eta indoekek zekiten hori ongienik.

Arguedasek (Guatemalan M. A. Asturias Nobel-Sariak egin duen bezelatsu) lumaren bidez egin zuen bururka; eta bere argitasun eta doabain guziak erabili zituen «Altiplano»-ko ketxuatarren eskubideak, hizkuntza, eta kondaira ezagutarazteko eta eresparazteko. Limako Unibertsidadean ketxuaren erakastea, Arguedasengan ketxuaren abertzale bat ikusi beharra dago. Hau aintzatzotzak hartu gabe ezin ditek

Arguedasen nortasuna konpreni.

Arguedasek, dena dela, urrats berri bat eman du Peruko kondairan. Arguedas, ezkertarra eta erreboluzionalaria izanik ere, ez da «indigenismo» deritzan horretan gelditu; Arguedasek nortu egin du bere buruan ketxuatarren arazoa, eta ketxuatar gisa jokatu du.

Indigenistek beste modu batera jokatzen zuten. Indigenisten uestez egin da indioa zapaldu ta dagoela: «el trato de que se daba a los indios era igual o peor que el que hoy damos a los animales»; eta beste etnia bat direla: «no podemos considerarlos (a los indios) ni siquiera como «connacionales», dio Ponca de Leónen, esate baterako.

Baina indigenisten uestez indio horiek salbatzeko eta askatzeko, «des-ketxu-tartu» egin behar dira, haien ketxuatar kultura eta hizkuntzatik atera behar dira: «ta castellanización y la alfabetización se integran recíprocamente». (Ponca). Hitz batez: indioen salbaidia kultura-geozidioa da.

Arguedas, Blanco, de la Puente, eta Peruko ekertar berriek, ordea, bestela ikusi dute arazoa. Arguedas, Blanco, de la Puente, indio dira (edo txarregu), ketxuatar dira, ketxuazale ere dira; eta luma, sindikatoa edo gerrilla hartu dute-larik ere, etnia-integrazioaren kontra daude. Erreboluzioa egiteko ketxua-tartasuna ukatu ez, baina azkar-tu eta nortu eta bizi egin behar direla ueste dute. De la Puenteren gerrilla-taldeen, adibidez, ketxuazko izenak zituzten; eta beren islepeko mendi-irratiek (Régis Debryak berak azaltzen digunez) ketxuaz egiten zituzten irratsaioak. Hogei-tabost urte gartzela egiten ari den Hugo Blancori, Arguedasek ketxue-raz idatzen zion; eta Blancok eraberean ketxuaz erantzuten barne-

tik. Eta hau zion sindikalariak: «Zer-gatik lotsatuko gara bada ketxuaz elkarri idazteaz? Gure hizkuntzaren lehunat Laguntza bat behar genuenean, deitu egiten genuenean, ketxuaz egiten genian... Ez duka sinisten gure hizkuntza españerara itzultzea lortu dugalako, neure bihotza xamurtu egin zaidala? Orain denek ezagutuko ditrek; eta ketxue-raz azal dezakegunaren atal txiki bat bederen sumatuko dik munduak. Benetan; ez zekiat zer gertatzen den nigan hire izkribuak irakurtzen ditudanean»...

(4'g orrian jarraitzen du)

Zeruko ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA
 Naparroko-Kantauriko ta Aragoko Kaputxinoak argitaratua (Carlos III, 22-Pamplona)

DONOSTIA'n:
 Oquendo, 22-Telf. 26666

ARRIDE SARIA:
 Barruan 215 pezeta
 Korreo batasunetako erriatan. 265
 Atzerrietako beste errietan 285
 Aldez Aurrez galdetu.
 Salmentan (Ale bakoltza) 5 pezeta

EZTABRIDETAN IGERI

Xabier Kintanaren «Erdal idazle zintzo horiek» artikuluan, nitzaz edo nere **Grañ pais...** deritzan liburuari apimen bat egin diola iruditzen zait. Eta, aurrrera pasa baiño leen, galdera bat egingo nioke nik Kintana gazteari: ¿Zergatik erabiltzen dituzu apimen oiek? Nitzaz itzegin bear ba dezue, ¿ez aal litzake obe nere izena ipintzea?

Aurre-urretik, eztabaidetan leporaiño sartuta nagola aitortu bear det. Gipuzkoar irakurleak dakiten bezela, Donostiako egunkari batean, gure euskal gaiaren idazle etsai bi —orain arte, bi— bidera irten zaizkit. Eta, ori gauza nabarmena! Kintanarentzat, erdal kutsuaz jantzita azaltzen ba naiz, idazle oiezant, ordea, «lokalista» eta euskaltzalegi naizela esango litzake. Oietako idazle batek, bere erantzuren jarraitzen diran le-rraok eskribitzen zituari: «Creo que todo lo que separa a los hombres es reaccionario y progresista lo que les une. Y los idiomas separan. Me parece muy bien que Aiznara no escriba en euskera y muy bien que no se interese por los temas locales».

Alako erantzuerara merezi duan liburu batek, Kintanak ueste duen bezin erdeltzale ez dala pentsatzen det. Eta, nere irizitan, bere urren-gogaldera —«¿Zertarako dira erderazko liburu horiek Euskal gauzei buruz?»— aski erantzuna dago itz berbera oiek.

Idazle guztiok euskerazi bakarrik idatzi bear degula pentsatzen dutenak, asko dira gure artean. Baiñan, idazlearen ofizioa zer dan ez jakitia da ori. Benetako bilingue idazle diranak, esku baten beutze-kin kontatu litzekoala esango nuke nik. Besteak, bakoitzak gure «tres-nera» berezia daukagu: batzuek, eus-keraz; besteak, erdera. Ideiak agertzea ez da naikoa. Idazleak jantzi bear ditu ideia oiek, indarra, sarrastada, xedea eta «doñua» emanaz. Eta, jakina: ori egiteko, izkuntza bat txit ondo erabili egin bear da. Euskal liburuak ez ditugula nai idatzi pentsatzea, zorakeria da. Orregatik, Kintanak, erderaz degunok ez gerala euskeraz fi-datzen gure esan nai adierazteko dionean, nerekin arrazoiz guztia du.

Orrexezagatik ez naiz ausartzen liburuak egitera. Baiñan ala ere, Kintana oker dago orain euskal maisu bihurtu nai dedala dionean. Poliki irakurtzen bat dit, nik eman nituan kontsejuak maisu batenak izan bearrean, irakurle batenak ziralara konturatu ko da. Eta kaleko irakurle trakets batenak, gainera.

Nik, adiskide legez —naiko bururka ba daukat orain berriekin asteko— galdetuko nioke Kintanari: ¿Zer artu-eman, zer «contacto» de-zute zuen taldeko idazle gazteak, erriarri? —eta erria esaten deda-nean «erudito» jendea ez dedala ikutzen zer esanik ez dago, kale-koa baizik—. Nik esango nuke zuen «contacto» ori txikia, eskasa dala. Eta nere kontseju —irakurle traketsaren kontsejuak— auxe da: Za-baldu leenbaiten «contacto» ori. Bear deute-ta. Mugitu, galdetu, billakatu, kaleko jende tarteen. Eta egon zaitezte ziur zuen denbora ez dezutela alperrik galduko. Kalean ere gauza asko ikasten da.

Azkeneko leerroaldian, Kintanak, zertifikadutzaille bihurtu, nere euskal idazlearen izendatzea ukatzen dit. Gu, euskaldunok, «cicloka» mugitzen gerala ba nekien. Baiñan orain, zaarren dogmatismoaren ikur-riña gazteek artu dute. Gaurregun, berak dira sariak eta zertifikadoak ematen dituztenak. ¡Juxen da lana! Gure gazte denboran, zaarak izaten ziran serio, gizatxar, dogmatiko eta zertifikadutzailleak; orain, berriz, gazteek. Gure edadakoei txanda pasa egin digute...

Nik pentsatzen det euskeraz idatzen duna —oraintxe ni ari naizen bezela— euskal idazle dala. Eta nik, traketsa izan arren, noizean bein euskeraz idatzen det. Gaizki, ziur nago, baiñan idatzen det. ¿Zer-gatik ukatzen ditade ba nere zertifikadoak?

Baiñan, ez dio inportarik. Zertifikadokio edo zertifikadokirik gabe, orain arte bezela, nere bidetik jarraituko det. Eta jusezi kasorik egin gabe, idatzen dedan guztian —bai euskeraz eta baita erderaz ere— nere burua euskaldun idaz-letzat artuko...

Euskalerritik begira...

HIRUGARREN MUNDUA ASKATASUN BIDEAN?



ITZ GUTXITAN

Gotzai ta apaizak batzarrean bil...
duta dabilza. Albistarie esketini
zaien txosten batean, au esan da;

Madrillen, gazte-talde batzuek arri-
ka egin zioten, Ipar-Ameriketarren
arazo-etxe batzuei. Valentzian ere.

Egun aurretik, Mutrikuko Kon-
deak au esan du «Vanguardia» al-
bistarieren etxean: «Modatik pasata
daudenak [fajxismoak dirala; ta
aruntki, «Totalitarismo-sistema-
goziak. Aurreraka diojan gizarte-
oniatan, zao-berriete ia aldaketa-inder-
sakonak diragu. Bi indar auen arteko
denduk sor-arazien ta aurre-
rapenerako irrika. Ezkerretik jo, naiz
eskutirik bultzat. berdin zaigu kontu
oniatan.

Ipar-Ameriketako gaitzik okertena.
«Ezkontzausta. da. Urtero berreun
milla seme-alaba, legezko etxe gabe
gelditzen dira alde artetan. Azkeneko
urte aurretik, 4.000 dibortziotatik
20.000 dibortziotara igo da istillu au.
Euneko 22 ezkontza-auste, diru-erri-
ak eragiten ditu.

Sindikaturako Ministro ordezkari-
ak, onela dio: «Gure buru-asteak
ontara dihoaz: lan-oporak eta lis-
karren aldaketa-bideak aurrez ikus-
ten saiatzeraz.

Telebistan iragarriak anuntzioak:
ugaltzen ariredira irabaziak goraka
dijooz. 4.076 iragarki or datoz ujo-
lan bezela; ta ugaltzen ari dirala.
irabaziak 352 milioitatik 485 milioi-
taraino igo dira.

Arguedas, Blanco...

(3 garren orrialdean asiera)

Eta Arguedas erreboluziolariak
erantzun: «Ez ahal haiz bada hi
he, «hacienda» horietako gizajo
horien buruzagizta hartu duena?
Gure herrian zapalduenak, astoak
eta zakurrak berak baino jipoitu-
goak, karkasarik higuigarrienez ta-
txatuok, ez ahal dituk herorrek biz-
kortu, haien arimak gogortuz?...
Bail Eta heuk iraindu eta madari-
katu dituk ketxuerez «gamonalak»,
heuk behartu dituk zuloan izkuta-
tzera, xagutxoak bailiran... Ene
anaia, ene anaia maitea, neu be-
zela larruz xuriska, baina bihotzez
indio osoal... Hire odolena duk,
Victo Pusa eta Felipe Maywa'rena
bezala...»

1982-a, indio multzo haundi ba-
ten buru, utzi zauden «hacienda-k
okupatu zituen Hugo Blancok. (Ho-
rietaz ari zaio Arguedas). Gandhi-
ren jakabideak Blancok onharturik,
indioek ez zeramaten su-iskilurik,
eta okupaldian ez zuten tirorik bo-
ta. Arma barkartzat, aspaldiko ke-
txuatar jabe-godokumentu zaharrak
zeramatzkien eskuetan sindikatoko
ketxuatar haiek, beren esku-bidean
frogakari. Blancoren saioa gaizki
bukatu zen; eta bera gartzelara
sartzean, haren adiskide eta jarrai-
tzaila zen de la Puente gerrillara
joan zen. Irakurleak dakikean be-
zela, de la Puente hori, lehenago
Che Guevara eta Camilo Tores be-

zala, gerrillan hil zuten berriki.
Hugo Blancok Arguedasen herio-
tzaren berri izatean hau idatzi zuen
gartzelatik: «Iritxi egin haiz hi. Bai-
na hire indio anaien esnera hel-
du duk, hire semeen iraultza eto-
rria duk.»

Bide desberdinak, baina helburu
berbera: ketxuatarrek ez zitzaizkien
«mendietako indioak». Arguedas,
Blanco, de la Puente, indio horietako
koak ziren, eta indio horien buru
egin ziren, indiotasuna haragizatut
zutelako. Indigenismotik ketxuatar
abertzaleatasunera igaro ziren.

Eta ez folkloreaken aldetik, Ar-
guedas folklorismoaren kontra ze-
goen. Hezur-haragizko gizon ema-
kumeak jaregin nahi zituen, ez fol-
klorea; Peruko ketxuatar biakiak,
ez flosidutako jakzera batzuk. Iraultza
guztizko egin nahi zuen, eta «giza-
tari dinatasuna» lortu ketxuatarren-
tzat: ez «herriarentzat», hitz batez,
«ketxuatar herriarentzat» baizik.

Eta Arguedasak hau idatzen zion
behin sindikalariari: «Parisko Quar-
tier Latin delakoan hire fotoa ikusi
diat liburu-denda batean, eta jauzi
ere egin diat pozez Camilo Cien-
fuegos eta Che Guevararen fotoen
artean hirea ikustean.»
Hori zen Jose Maria Arguedas.
Eta ketxuatarrek bazekiten; eta
bihotzez maite zuten.

Eliza Katolikua eginetik aundienak
egiten ari da, elkar-konponketa bi-
dean sartzen. Bitartean sistema ba-
tuzuek, indarrean beren gobernaketa
leporatzen ari zaizkigu. Onela joko-
tzen dute, Mosku ta Pekin'dik ero-
ginak diran lurralde sozialista ba-
gizuek. «Ta au ere ezarri zuen: «Sis-
tema oiek, alegia, fajzista-sistemen
anai-bikiak ziralaz.

Eguno gizakiak albiste berriak gogozkoak ditu, lehenago notizi za-
har eta betikoak baino. Eguneroko izparringien berriak, gertaera minga-
rriak, akzidenteak, gerla madarikatuak ez gaituzte ezertxo ere mugiaraz-
ten. Gauzarik lagarrietara ere ohitu egiten gera.

Izparringiak bi albiste motakin betetzen dituzte euren orrialdeak: ki-
rolak eta gaurregun munduan nabarmentzen diran gerlak eta burrukak,
batez ere Vietnamgo eta Israel inguruko egoera sarritan aipatzen di-
tuzte. Zoritxarrez, hontara ere ohitu egin gerala ez da dudarik, gerla ta
auzi horien gora-beherak ez digute axola haundirik.

Hirugarren mundua zelán dagoen ikusita nere buruari galdera hau
egiten diot: egun dagerzikigun gerla ta matxinadak kasualidade baten
ondorenak ahal ditugu ala egoera nardagarri baten agerka eta ispillu?
Herri horiek askatasun bidetik abiatuak aal ditugu?

Vietnamgo gerlan ez da aldakuntza haundirik nabaitzen. Azken urte
hauetan zehar bezalatsu jarraitzen du orain ere. Indar aldetik ipar eta
Hegoa aldekoak ez dute desberdintasun haundirik. Bi talde hauen arteko
gerla luze ta galgarri dijoakie.

Azken aste hauetan, ordea, lehenago Indotxina lurraldeetan joera ta
arriku berri bat bizi-biziro dager: gerla gehiago zabalarazteko arriku
bizian daude. Lehen ipar-hegoa arteko burruka bazan, orain sortalde-
sartaldera herriak sutago dauzkagu.

Ego Vietnamekin bat eginik dauzkagu: Hegoa aldeko Korea, Indonesia,
Tailandia, t.a. Filipinas ta Australiak begi onez dakuste, ta laguntza
eskaizteko prest dauzkate Hegoa aldeko militaristak. Kanboya ere, ame-
rikanoei gogozkoa zaien gobernuarekin, gerla giroan bete-betean murg-
ildu dira. Tailandia ere, une gutxi berru, bide berdiñetik abiatuak ikus-
teak, ez gintuzke ezertxoere harrituko.

Ipar Vietnam, Tailandia, Malasia ta Birmaniako iraultzaileak bat egi-
nik, elkarturik daude, ta Txinaren babespean mugitzen dirala argi da-
kusgu. Taktika aldetik ere, gerlak datoizkigun egunetan hartuko duan joera
aurrez asmatuko degulakoan gaude. Amerikar Estadu Batuak mugiarazten
dituzten indarrak haundiak eta ugaririk izanik, lurralde luze-zabala ber-
dinsua duten herriak, ordekak eta ibar lurrak menperatuko dituztela pen-
tsatzen degu. Euren posibilitadeak, ordea, ez dira anitez pensatu ta
amestu ohi duten hainbatekoa. Lurralde zailak eta menditsuak dituzte
Txina ingurukoak, ta lurralde horietaz komunistak jabetuko dirala ez dago
dudarik.

Bi indar haundi ta eragile aurrez aurre, Txina ta Estadu Batuak, biok
gogor eta indartsu, Parisko elkarrizketaldietan erakutsi izan dutenez, ez
dute amore eman nahi. Gerla, bada luzatuko da, ta guztiok berdin ja-
raituko dugu. Bitartean mundial ostaloketak txapelketak askoz interes
haundiagoa sortuko du jenderik gehienengan.

Gerla, Asiaren Hegoaldeko sortaldean, eta Israel inguruan latza ta kis-
kalgarria, odolak irakiten eta heriotza mingarri bihotzak taupadaka.

Hirugarren mundua, hemeen aipatutako tokietan bakarrik aal dago arris-
kuan? Zerlan daude egun herrialde horiek antolatuz? Zeintzuk dira, hain
zuzen, eurenagan dauzkaten korapilo bihurriak?

Urte gutxitan bere egoeraz esnaturik, bizi berri batera ernatu zaizki-
gun zenbait herrialdek, bere atzerapena behin betiko uxatu nahirik au-
rreapen bideari ekin diote. Sarritan, zoritxarrez, ez dira berez ibiltzeko
gauza, ez dute behar hainbat kapital eta dirurik, ta beste estadu ta
nazioak inguratu zaizkate euren «laguntza paregabea» eskainiaz.

Ekonomi indarra ta antolaketak, politika egiturak bere menpe hartzen
ditu, ta estadu berri ta gaztetan euren komeni zaizkaten «gobernu de-
mokratikoak» ezarrarazten dituzte, gogozkoa ta komenigarri zaien «bakea»
sortzen.

Hirugarren munduko etorkizuna benetan beltza dakusgu. Indar inpe-
rialista gosetiek, ekonomiairen zain eta odol susperrigarriak beretzat behar
dituzte, ta honen aurka ez dute ezertxo ere egiterik indar iraultzailearen
bidez ez bada.

Eguno egoeran, gerla madarikatuak ez dira berez sortu, zerbaitez
sortarazi ditu. Beste zenbait estaduren egitura ta erakundek aztertzen
baditugu, ondorenean, berriro gerla giroa nabarmentzeak ez gaitu batere
harritu behar.

Guztiok hobeki ulert dezagun, urrengo lantxoetan hirugarren mun-
duko estaduen egoera ta eralguntzak aztertuko ditugu.

MIKEL UGALDE

TRANSPORTES azkar
ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijon,
Donosti'tik eguneroko:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Ali-
cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería'ra.
Astearen iru aldez:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.
Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA
Tefonoak: 25.457 eta 26.987



Rusiako teknikoak, egiñalean ari
dira Suezko ubidetik 12 kilometro-
tara, 15 jauritki-leku egiten. Ejipton
gaur, 15.000 egazkin-gidari ruso omni-
ditugu. Otez gain, beste 5.000 erri-
gizon erakusle ari dira lanean.

eginda gero bakarrik iritxiko zala.
Ta au zeatzago esan zuan ere: Nere
iritzi au, Ateaniako partidu batek
bakarrik onartzen duala, uste dua-
na, oso uste okerrean dago. («Ma-
drid»).

Aur atzeratuen aldeko Aseguruak
antolatzen eta erabakitzen, gizarte
giroan ari dira. (BOE).

Maiatzaren 25'garrenean asi zan
«MATESA BAT/ORDEA», bere bi-
llera egiten, Oriarako ateak itxita
aurrez, eta albistalaririk gabe.

Danielou-Garaudy arteko elkarriz-
ketan, Frantziako Telebistak au en-
tzunarazi digu: «Apaiz langille ba-
tuzuek, noski, komeni diraz; baina ez
geiegi. Mar'zen eraginak buruz alda
bait-dituzake»-esan zuan Danielou'k.

Saldadutza-ordez, Erbesteko lanak
artuta beteko leike geroakan gazteen
eginbehar au. Oriarako batzordea,
egñalean ari da neurriak erabakitzen.

Gaztekoen Auzitegiak Nazioko
Buru izendatu dute Jose M. Lo-
jendio jauna.

Monseñor Heider Camarak Pari-
sen egin dituan adierazpenak: «Gau-
den-gaudenean, eztago gaur sozialis-
mu-eredurik, Irugarren munduari itxa-
ropen-bidea zabal deziokoenik».
«Gobernu diktadura gabekorik, ale-
gia: gizona begirunez artzen duanik
baltiz, egungarriago irudituko litzai-
dake». «Onera etorri naiz. Brasilen
ezpaitet eskurik, irratiz eta telebis-
taz ez beste berriak zabaltzeko bi-
dez itzegiteko aukerarik.

Bundesra'gen Frankfurt-ko ordezkari
Dani'el Maithofer'ek au esan digu:
Españia Merkatu Baituan sartzea,
emengo Gobernu esku-zabalagoa

Eliza Katolikua eginetik aundienak
egiten ari da, elkar-konponketa bi-
dean sartzen. Bitartean sistema ba-
tuzuek, indarrean beren gobernaketa
leporatzen ari zaizkigu. Onela joko-
tzen dute, Mosku ta Pekin'dik ero-
ginak diran lurralde sozialista ba-
gizuek. «Ta au ere ezarri zuen: «Sis-
tema oiek, alegia, fajzista-sistemen
anai-bikiak ziralaz.

ECHABE
ETXABE'REN
Mueble - Etxea
Fuero'en Enparantza
Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 21
ZARAUZ
LARRESORO